

Elikagaien krisia: gosearen negozioa

Munduan 850 milioi pertsonak gosea noztzen du, eta oinarriko elikagaien prezioen gorakada izugarriaren ondorioz, 950 milioi izango dira laster. Adibidetzat, gariaren prezioa: %130eko igoera mundu mailan azken urtean. Elikagaien inportazio dependentzia handia duten herrialdeetan, oraindik okerrago, zerealen prezioa bikoiztu eta hirukoiztu egin da. Kontu oso larria benetan, 5 segundoko haur bat hiltzen da gosez munduan, eta egoera okertuz doa.

Banekien FAOk, NBERen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak, ekainaren lehen astean Erroman egin zuen goi bilerak ez zuela ekarriko elikagaien krisiari eta gosete gordinari aurre egiteko neurri zehatzik. Hala ere, egoeraren sakoneko zergatietara jo eta egungo nekazaritza ereduaren gutxieneko salaketa espero nuen. Ezta horixe ere! FAOk, alarma egoerak derrigortuta, bere burua zuritu du asmo oneko adierazpenak erabiliz, baina, berriro ere, zergati estrukturalak aztertu gabe multinazional erraldoien interesak babestu ditu milioika pertsonen elikadura beharrezan gaineratzen.

Nahiz eta gezurra dela ondo jakin, eskaintza eta eskaera arazoa bailitzan aurkeztu dute krisia, eta elikagaien produktzioa handitzea eta esportazio mugak guztiz deuseztea planteatu dute, merkatuaren autoerregulatzeko gaitasunaren eskuetan utziz ara-



DANI BLANCO

zoaren konponketa. Hots, eredu aldatu orde, krisia eragiten duten elementuak areagotu.

Ez! Ez dago elikagaien eskasiarik. Zereal garauen ekoizpena %4 igo zen iaz. Eta azken 50 urteotan munduko biztanleria bikoiztu egin bada, garauen produktzioa hirukoiztu egin da. Kontua da milioika pertsonak ezin dituela elikagaiok erosi ez ekoiztu. Tokian tokiko merkatuak eta lurra nekazal-negozioen transnaziional monopolisten espekulazioen eskuetan jarri dituzte eta herrialde aberatsetako elikagaien sarrera bultzatu dute. Ondorioz, nekazal egitura propioak desegin eta nekazari txikiak eurentzako eta ingururako elikagaiak sortzetik gosetea noztizera pasatu dira. Globalizazio neoliberalaren logika perbertsoa: munduan gosea sufritzen duten pertsonetatik %80a nekazari txikiak dira.

Zenbat eta gosete handiagoa, hainbat eta gorakada handiagoa nekazal-negozioetako multinazionalen mozkinetan. Potash Corp, Mosaic, Cargill, ADM, ConAgra, Nestlé, Unilever, Monsanto, Dupont eta abar luzeak, 2007an %30tik %150ra doazen gorakadak izan dituzte 2006arekin alderatuz. Mozkin izugarriak milioika pertsonaren gosete krudelaren kontura!

Gosez hiltzearen negozioa!

Elikadura burujabetzaz serio hitz egiten hasiteko ordua da. Geure herritik bertatik hasita. ■

«
Zenbat eta gosete handiagoa,
hainbat eta gorakada handiagoa
nekazal-negozioetako
multinazionalen
mozkinetan
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Izan da, *Cuatro* espainol telebista kateak lortu duen audientzia. Ia hemezortzi

milioi ikus-entzule erakarri zion Eurocopak, Espainiako futbol selekzioak irabazi berri duenak. %90 inguruko kuota, *TNS Sofres*en arabera. Ehundik gorako ordu emanak, hemeretzi partidutan banatuak, batez besteko audientzia sei milioi ikus-entzuleek hornitua. Ni, neroni tarteko, frantses katearekin *zapping*atua espainol esatariak alboratu arren. *Zenithmediaren* arabera, gehien nabarmendu diren iragarkiak, Hyundai, Mastercard eta McDonalds izan dira. Espainiako Futbol Federazioaren publizitatearen

Inoizko handiena

eskubideak kudeatzen dituen Santa Mónica Sports agentziak dioenez, guzti honek bide berriak irekitzen ditu Sudafrikan

2010an jokatu den Mundialean. Cruzcampo garagardo marka da lehen lerroan dagoena, jada sinatua baitu kontratua. Bere arerio komertzial Mahouk, Real Madrilen eskubideak ditu bertako jokalaria barne, zehazki Iker Casillasek, eta ezingo du baliatu Espainiako elastikoz jantzitako Casillas ikonoaren irudia, kale bati bere izena jar diezaioten eskatu ondoren. Izan ere emozioa motorra da, finantza ibilgailua noranahiko zentzuan eta norabiderantz gidatu litekeena, zalea gatibu bilakatzeko gauza badena. ■